

Fiesta Nacional

1940 . «Cruzada», bukatu berria. Hamar urte nituen orduan. Eta korrida bat ikusi behar genuela erabaki zuen gure aitak. «Ikusi behar» nuela baino hobeki letorke, agian, «dastatu behar» genuela: «saltsa» betean alegia.

Eta korrida bat behar bezala dastatzeko, moda zenez, «coche de punto»z joan behar omen zen plazara.

Eta Avenida-ra joan ginen kotxea hartzera.

Bina zaldik tiraturik, gaur «Bai-Bai» kafetegian dagoen ezpaloiaren ondoan egon ohi ziren «kotxe» haiek (garai hartan, «Raga» eta «Madrid» izeneko kafeen ondoan). Korrida egunetan huraxe zen abiapuntua; eta emakumeak, eskuetan abaniko koloretsuak harturik, peinetan nabarmenez eta mantelina dotorez jantzi ohi ziren, Andaluzian bezala edo. Hain zuzen ere, Chofre-raino, eta Avenida eta Miracruz kaleetan barreneko kotxe-ilara bitxi haren pasaia izaten omen zen korridaren «kolorea».

Arratsalde hartan, giro horretan murgildurik heldu ginen plazara. Ortega zuen deitura, gaizki ez banago, toreroetako batek. Beste birekin aritzekoa zen; baina ez naiz beroien izenaz oroitzen. Eta berdin zaigu, jakina.

Eta orduantxe ikusi nuen neure bizi guztian ikusi (eta ikusiko) dudan korrida bakarra.

PASODOBLE giro betean, «paseillo» delakoa egin dute aurrenik. Ez nekike arrazoia azaltzen. Baina torero urretsu, harroputz eta galtzestu haiek, hotz utzi ninduten erabat.

Gero, zezen bakoitzarekin ekintza-zerrenda berbera errepikatzen zelarik, abere eder baten torturaketa eta hilketa gupidagabea ikusi nuen.

Pase labor batzuren ondoren, pikadorearen «faena» gertatu da, oker ez banago. Pikadoreak, zaldi ginetik zezenaren larrua zulatu nahian, bere indar guztiaz akuilu luze bat bultzatuz eta jiratuz, eta bere gorputz guztiaren zama hagarren ginetik erantsiz, lortu egin du azkenean zulaketa hura. Berehalaxe, iturri batetik bezalaxe jalgi da odol gorria, oparo, batera zezenaren sabela inguratuz eta plaza-zorua ere ausarki bustiz. Eta horra hor pasodoble «chulo» baten airea bazterrak betetzen ari. Jendea, noski, loriatu rik.

Baldilleroen txanda etorri da gero. Ez dakit zenbat izan ziren. Baina beroien eginkizuna garbi dago: zezenaren bizkarrean koloretako labana zorrotzak iltzaturik uztea. Eta balantzaka ikusi ditut banderilla horiek; baita zauri berriotan odola erruz isurtzen zela. Zezena dagoeneko, odol husten abiatua, eta ahultzen hasia; eta oinazeen oinazeaz, marruka ere bai tarteka. Jendea, artean, ezin poziago faena zoragarri haiek ikusita. Eta torturaketaren martxa ona ospatzekotan, beste pasodoble chulapón bat barra-barra.

Bukatzeko, matadorea; euskara hutsez esateko, hiltzailea. Ezpata luze bat hartu du, zezenaren bizkarrean erdi-erdian sartu (behin, onenean; lau zapabost aldiz, okerreanean); eta odol iturria berriro jalgi da oparo. Zezen handiak, orduan, bere belaukak tolostu ditu, eta lurrera erori da. Helburua lortuta dago: tortura hutsez eta pasodoble airetan hil dute zezen indartsu hura. odol tatxa eskeragak estaltzekotan, hondar pilo batez diximulatu dituzte balentriaren ondoko istil gorriak.

Ez omen zen gertatu, dena dela, zezen hura behar bezain oldarkorra. Eta, pasodoble giroan zaldi talde batek zezenaren gorputza, oraindik odola zeriolarik, plazatik arrastaka erretiratu duenean, oihu bitxiak entzun ditut han-hemenka: «medio toro», «medio toro»...

GURE aitak ilusio handia zeukan guk korrida bat ikus genezan; eta izkutatu egin nion neure pena, neure amorrua, neure goragalea.

Baina sekula eta inolaz ere horrelako astakeriarik berriro ikusiko ez nuela erabaki nuen. Eta halaxe egin dut. Abere ximple, jator eta indartsu bat, festa giro harroputz hartan, eta era gupidagabe hartan, behin eta berriz akabatzea, mingarri iruditu zitzaidan, lotsagarri, izugarri. Eta toreroak gorroto izan nituen horrela lehenengo egunetik beretik, bihotzaren erditik, haur batek gorroto dezakeen bezala; eta bihotzaren erditik ere, zezen gizajoak maitatu. Eta lehenengo egunetik, beraz, «España cañí» eta gainerako pasodobleekiko, gorroto osoa hartu nuen. Ezintasunean eta aspertuen libertimendu gisa hiltzea zein latza zen ulertu nuen.

Handik urte batzutara (frankismo betean ez baitzen zaila!) «festa» (??) lotsagarri horri espainiatarrek «fiesta nacional» deitzen diotela ikasi nuen; eta fazistek sekulako propaganda egiten ziotela. Eta neure burua español ez sendituz, lasai gelditu nintzen.

BAINA orduantxe ere ikasi nuen, zurturik, euskaldun batzuk (José de Arteche idazleak, besteak beste) «festa» (??) hori euskaldun jatorizat zeukatela, pasodobleak eta guzti; eta zezen-torturaketa horren aldeko porrokatuak zirela. Ez nuen hura hastapenean ulertu; baina gero bai.

Orain, beharrik, zezen-korridak torturatzat salatzen dituzten pintadak agertu dira gure herrietako murruetan; eta han eta hemen zuzenen aldeko (eta, hortaz, korriden aurkako) multzoak antolatzen hasi. Poz galanta izan dira niretzat; eta, agian, beste askorentzat. Bazen garaia!

Donostian, bestalde, zezen-plazarik gabe gelditu gara. Hobe, dudarik gabe.

ABEREAK, aliamiak oro, gure anaia hurbiltzat dauzkat. Zezenak ere bai.

Beti izan dut, bestalde, zakurren bat etxen: laguanik onenak zaizkit. Eta neure bulegoko horman, aspaldi danik, gure egiaren oroigarri, gorila bikote indartsu eder baten fotoa daukat.

Beti iruditu zait antropozentrismoa (kristauna berezik) ez-jakintzaren, itsutasunaren eta giza-harrokeriaren neurri zehatza.

Zezenzaleek barka nazatela: zezenen arazo honetan, gauza bera.

TXILLARDEGI